



□

ALKATETZA-DEKRETUA 9/15

Udal Arkitekto Aholkulariaren txostena kontuan hartuta, ondokoak ondorioztatzen dituen:

IZATEZKO AURREKARIAK

Lehena.- Egiatzatu ahal izan dela baimenik gabeko eraikuntza lanak eta emandako baimeneko baldintzei egokitu gabeko lanak egiten ari direla San Bartolome auzoko 40.ean, Belaustegi baserrian.

Bigarrena.- Lanok lanabesetarako etxola berreraikitzeke direla.

Hirugarrena.- Lanok M. L. E. U.k sustatu dituela.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Ekintza horiek Euskal Herriko Zoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 220. artikulua 1. atalean ezarritakoa urratzen dute, beraz, lanen berehalako geldiaraztea eta interesdunari legeak ezarritako epean dagokion baimena lortzeko eskabidea egitea dagokio.

Adierazitako legerian eta aplikagarri den gainerakoan xedaturikoaren arabera, eta azaldutako aurrekarien arabera, Alkatetza honek ondokoa erabaki du:

EBAZPENA

Lehena.- Hirigintza-legezkoatasuna berrezartzeko espedienteari hasiera ematea lanabesetarako etxola eraikitzeke egiten ari diren lanei dagokienez, M. L. E. U.k sustaturikoak.

Bigarrena.- Adierazitako eraikuntza lanen berehalako geldiaraztea agintzea, baimenik gabe egiten ari den heinean, lanen jabeari eta gainerako arduradunei espresuki eskatuta berehala geldi ditzaten lanok, eta ohartarazita ezin izango dituztela jarraitu dagokion udal baimena lortu eta lanok baimen horri egokitu arte.

Hirugarrena.- Eskaera egitea interesdunei etetearen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean dagokien baimena lor dezaten, espresuki ohartarazita epe hori dagokion baimena eskatu gabe igaroz gero, edo lanok baimen horretako baldintzei egokitu ezean, Udalak erabakiko duela zelako motatako lanak egin, interesdunaren kontura, eta behin betiko debekatuko dituela izango lituzkeen erabilerak. Era berean jokatu du interesdunari baimena ukatuko balitzaio, baimena emateak Planeko edo ordenantzarako aginduak urratuko balitu.

Laugarrena.- Egindakoa kontuan hartuta eta emandako legezko epea igarota, hirigintzako arau-haustearen ondoriozko espediente zigortzaileari hasiera ematen zaion erabakiko da, badagokio.

Busturian, 2015eko apirilaren 27an.

Alkatea,

Nire aurrean
Idazkaria,